CONVOCATORIA - DEIALDIA - CALL FOR PAPERS

## CONGRESO INTERNACIONAL

# Las madres no: derivas de lo materno en las prácticas artísticas y culturales



Gerda Taro. Mujeres durante el cortejo fúnebre del general Lukács. Valencia, 12 de junio de 1937.

Lugar de celebración: **Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, Facultad de Letras (Vitoria-Gasteiz)**

Fechas: **3, 4 y 5 de julio de 2024**

Organiza: **Proyecto RITMOS. Ritmos del trabajo femenino en la historia del arte y la cultura visual: Estado español 1936-2022.** PID2021-126211OA-I0. Financiado por MCIN/AEI/10.13039/501100011033/FEDER, UE.
http://proyectoritmos.com/

En los últimos años, asistimos a un creciente interés por repensar la maternidad desde el ámbito de las producciones culturales y artísticas. La atención de los feminismos a las prácticas maternas es hoy mucho mayor que en las décadas pasadas, no solo desde el activismo, sino también desde el campo teórico.

En el Estado español, novelas, películas y proyectos artísticos están abordando lo materno desde perspectivas muy diversas, pero que parten de su desidealización para problematizar la figura de la madre en una sociedad cada vez más neoliberal y atomizada. El imaginario colectivo de la maternidad es un entramado en el que—a pesar de los esfuerzos realizados por las distintas olas del feminismo para señalar que la maternidad era una institución social cuya función era la dominación de las mujeres—predomina la naturalización de la idea de la madre como el destino biológico y social de las mujeres. Maternar, además, se expande hacia el cuidado de los mayores, de las personas dependientes, y de los enfermos.

La racionalización de la explotación que supone ser madre se da gracias a lo que denominamos "ideologías maternalistas": la internalización de unas expectativas afectivas socialmente sostenidas que buscan que la madre se perciba a sí misma como fuente de amor incondicional y cuidado ilimitado. Abolir la famila, como propone la crítica feminista Sophie Lewis, permitiría desprivatizar los cuidados reproductivos asignados a la familia y abrir paso a otros horizontes en los que imaginar otra socialidad más igualitaria; destruir la familia significa poner fin al capitalismo desde su esfera más íntima. Si la madre es una figura dominada y explotada socialmente que opera como una suerte de gozne del centro doméstico de operaciones para hacer posible la intensificación del capitalismo, es también una figura anti-social, por cuanto reproduce para un sistema que nos destruye. ¿Qué significa liberar a la madre de esta instrumentalización capitalista y patriarcal? ¿Qué queda de la madre una vez que abolimos la familia? Y, ¿cómo podemos pensar la madre como la marca de una desposesión que nos recuerda que hay unas formas otras de construir lazos duraderos que no pasan por el parentesco y que sean más igualitarios?

Estamos interesadas en recibir propuestas que intenten reescribir, analizar y problematizar la maternidad y sus representaciones, desde las prácticas artísticas, culturales y visuales. Las ponencias podrán impartirse en castellano y en euskara. Aceptamos investigaciones provenientes tanto del ámbito académico, como de los ámbitos artístico, literario, cultural, activista o popular, en torno a los siguientes ejes temáticos:

## **MESA 1:** Desafecto materno: Trabajo afectivo y sus formas de resistencia

Modera **Katryn Evinson** (Columbia University)

Si el trabajo materno es trabajo, ¿de qué clase de trabajo estamos hablando? Si consideramos que, en gran parte, el trabajo materno conlleva una dimensión afectiva, ¿qué consecuencias produce su sobre-explotación en el estado emocional de las madres? En el contexto contemporáneo, donde los niveles de aislamiento y atomización social en los que se desenvuelve la experiencia de la maternidad parecen ser históricamente inauditos, uno de los síntomas que se observan es la disociación emocional con respecto de sus hijos. En la clínica, esta expresión se codifica patológicamente como depresión post-parto, no obstante, esta disociación—o desafecto— puede tomar distintas formas y pensarse más allá de la clínica para considerarse como la expresión de un problema psicosocial. De manera similar a la teorización sobre el aumento de problemas de salud mental entre los trabajadores asalariados como una forma inconsciente de resistir las consecuencias de la intensificación del capitalismo y la creciente normalización de condiciones precarias en el ámbito laboral, ¿podríamos considerar que el "desafecto materno" es un síntoma de rechazo ante la sobre-explotación del trabajo materno? En esta mesa, exploramos cómo la producción cultural ha abordado el desafecto materno en sus múltiples manifestaciones.

— Trabajo afectivo y repertorio de estrategias para la huelga de maternidad.
— Maternidad y salud mental.
— El desafecto y la disolución de la subjetividad materna y su relación con la idea de la auto-afectación como premisa para la subjetivazión.
— Cambios históricos en el significado y modos de expresarse el desafecto materno en la producción cultural.

## **MESA 2:** Genealogías fantasma en las prácticas artísticas y culturales

Modera **Maite Garbayo-Maeztu** (Universidad del País Vasco)

Griselda Pollock, en su análisis de la iconografía materna de la artista Mary Cassat, sostuvo que el modernismo definió su modernidad no sólo a partir de la abolición de la madre, sino también por medio de la expropiación de su creatividad. El modernismo destronó a la madonna, y con ella a la madre, relegándola a un lugar de antítesis de los espacios públicos de la modernidad. Esta oclusión de lo materno está estrechamente conectada con la ausencia de genealogías femeninas y/o feministas, que se ha tratado de subsanar a partir de proponer intervenciones feministas en la historia del arte y de las prácticas culturales.

En esta mesa, nos interesa recibir propuestas que reflexionen sobre la construcción de genealogías femeninas y/o feministas, como herramienta fundamental para intervenir críticamente desde los feminismos la historia del arte y de las prácticas culturales.

— Los feminismos como trabajo genealógico.
— Las representaciones de lo materno en el arte y la cultura.
— Las presencias y las ausencias de lo materno en las prácticas artísticas y culturales.

— Pensar la figura de la madre desde otras formas de parentesco que trascienden el vínculo genético y el núcleo familiar.

## **MESA 3:** El rechazo a la maternidad

Modera **Julia Montilla** (Universitat de Barcelona)

La aversión a la maternidad tiene múltiples caras, y puede vincularse a mujeres sin problemas en materia de salud, es decir, con capacidad para reproducirse, pero que eligen la opción de no procrear, el aborto, el abandono, e incluso el infanticidio. Estas elecciones pasan por el reconocimiento de los derechos reproductivos o de su carencia, y pueden estar atravesadas por cuestiones como el desafecto o la salud mental. La gestación puede entenderse como trabajo y, en consecuencia, la obligación de gestar contra la propia voluntad, como un trabajo forzado. Partiendo de esta premisa, se acogerán comunicaciones que, desde las prácticas artísticas y culturales, aborden la decisión de no ser madre.
— La lucha por el aborto libre y gratuito y el uso de contraceptivos.
— La construcción social del mito del instinto materno y su puesta en cuestión.
— La estigmatización de las mujeres que no procrean (tildadas de egoístas, inmaduras o incompletas).
— Las obligaciones impuestas a quienes no paren (como hacerse cargo del cuidado de parientes de la tercera edad).
— El infanticidio como un acto de resistencia (por ejemplo, en contextos de esclavitud).

## **MESA 4:** "División sexual de la inquietud". Maternidades, rebeliones y acción colectiva

Moderan **Cecilia Pascual** (Investigadora independiente) y **María Rosón** (Universidad Complutense de Madrid)

Partimos del concepto de conciencia femenina de Temma Kaplan. Con él, se entiende que la defensa por parte de las mujeres de los derechos a ellas otorgados por la división sexual del trabajo, si bien fundamentalmente conservadora, es capaz de generar implicaciones políticas radicales. Nos interesa recibir propuestas que aborden cómo las mujeres se han organizado o han protagonizado experiencias de protesta orientadas a restituir el equilibrio quebrado de lo cotidiano frente a una situación opresiva. Concretamente, nos centraremos en aquellas que maternan o se involucran en labores de crianza y de responsabilidad del cuidado de la vida.

Aludiendo a la "inquietud", subrayamos las estrategias y procesos de resistencia que complejizan el propio concepto, ya que la acción colectiva transforma, (de)forma y estalla los puntos de partida que organizan el movimiento.
— Conservación y cuidado de la vida inscriptos en  acciones colectivas o individuales.
— Abordajes metodológicos en torno a archivos y fuentes. Chismorreo, comadreo, canciones. Poéticas de lo cotidiano.
— Organización de la protesta a través de la experiencia situada desviada o complementaria de los objetivos de reivindicación sindical o gremial.

— Madres de Plaza de Mayo, memoria e historia; Madres contra la droga; Narcotráfico y buscadoras de huesos.Maternidad en contexto de lucha armada y guerrilla.
— Maternidades, (s)exilios, migraciones.

**MESA 5: Trabajos de las maternidades. Todo lo que se acumula en los cuerpos/espacios, previamente devaluados.**
Modera **Luisa Fuentes Guaza** (Investigadora independiente y activista)

Las prácticas maternas están atravesadas por asignaciones de género imbricadas en el espacio "hogar", entendido como un territorio de acumulación sin posibilidad de politización, como un lugar que no puede nombrarse políticamente. Esto genera consecuencias y derramas continuas sobre los cuerpos que asumen tales prácticas, reproduciendo esclavitudes domésticas contemporáneas. Así, los espacios y los cuerpos se van entrelazando en una devaluación sistémica que los sitúa en la condición de no-ser. Desde estos ejes, nos interesa recibir propuestas que problematicen la diversidad, la especificidad y las implicaciones de los distintos trabajos que se despliegan desde las prácticas maternas, en negociación constante con los espacios atravesados por asignaciones de género: inercias de romantización, negación perpetua, psico-obligatoriedades y hetero-mandatos.
— Luchas de trabajadoras del hogar, luchas de madres colectivizadas, y posibles alianzas entre ambas luchas, por la politización de los espacios.
— Consecuencias sobre los cuerpos maternos: madres y cuerpos que asumen las prácticas maternas ante la herida histórica arrastrada por la condición no-ser.
— Diversidad, especificidad y problematización de los distintos trabajos que se despliegan desde las prácticas maternas.
— Devaluación de los espacios socio-históricamente asociados al cuerpo-mujer.

## PROPUESTAS Y PLAZOS DE PRESENTACIÓN DE COMUNICACIONES

— Las propuestas de comunicación (título y resumen de unas **250 palabras**, señalando el eje temático al que se adscribe), redactadas en euskera o castellano se enviarán junto con una breve nota biográfica (10 líneas máximo) antes del **30 de abril de 2024** (plantilla: https://t.ly/mU8Bz) a: **proyectoritmos@gmail.com** (Incluir en el título del mail el número de la mesa)

— Tras su evaluación por el comité organizador, la dirección del congreso comunicará la decisión antes del **15 de mayo de 2024**.

— Las comunicaciones (**15 minutos de duración**) se llevarán a cabo en castellano o en euskara.

## INSCRIPCIONES

— Inscripción para asistentes: mail **proyectoritmos@gmail.com**

# Programa

## Miércoles, 3 de julio

**16:00 h** **Bienvenida** a cargo de **Maite Garbayo-Maeztu** (Investigadora Ramón y Cajal en el Departamento de Historia del Arte y de la Música de la Universidad del País Vasco e IP del Proyecto PID2021-126211OA-I0. RITMOS. Ritmos del Trabajo Femenino en la Historia del Arte y la Cultura Visual (Estado español, 1936-2022)

**16:30 h** **MESA 1**. **Desafectos. Trabajo afectivo y huelga de maternidad.** Coordinada por Katryn Evinson (University of Columbia, New York)

**18:00 h** **Conversación entre las escritoras Katixa Agirre y Mar García Puig.**

**"Las malas madres y las buenas escritoras"**

## Jueves, 4 de julio

**10:00 h** **MESA 2.** **Genealogías y fantasmas: presencias y ausencias de lo materno en las prácticas culturales.** Coordinada por Maite Garbayo-Maeztu (EHU).

**12:30 h** **MESA 3.** **El rechazo a la maternidad.**

Coordinada por Julia Montilla Campillo (UB).

**16:30 h** **MESA 4.** **"División sexual de la inquietud". Maternidades, rebeliones y acción colectiva.** Coordinada por María Rosón Villena (UCM) y Cecilia Pascual (Investigadora independiente).

**18:00 h** **Conferencia de Rosalva Aída Hernández Castillo** (Centro de Investigaciones y Estudios Superiores en Antropología Social (CIESAS), México)

**"Las mujeres buscadoras en México: La politización de la maternidad y el cuidado de los muertos"**

## Viernes, 5 de julio

**10:00 h** **MESA 5.** **Trabajos de las maternidades. Todo lo que se acumula en los cuerpos/espacios, previamente devaluados.** Coordinada por Luisa Fuentes Guaza (UAM, Madrid).

**12:30 h** **Ona Bros** (Artista)

**"BetaBlastoCuir y Las Comunidades del Hielo"**

**14:00 h** **Cierre y despedida.**

**COMITÉ CIENTÍFICO Y ORGANIZADOR:** **Maite Garbayo-Maeztu** (Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU) / **María Rosón Villena** (Universidad Complutense de Madrid) / **Katryn Evinson** (Duke University) / **Julia Montilla Campillo** (Universitat de Barcelona) / **Luisa Fuentes Guaza** (Activista e Investigadora independiente) / **Cecilia Pascual** (Investigadora Independiente)

**FINANCIACIÓN:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) / Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades/Zientzia eta Berrikuntza / Ministerioa. Proiektua: PID2021-126211OA-I0.

eman ta zabal zazu
UPV EHU

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE CIENCIA E INNOVACIÓN

## CONVOCATORIA - DEIALDIA - CALL FOR PAPERS

## NAZIOARTEKO KONGRESUA

# Amek ez dute: amatasunaren bilakaera praktika artistiko eta kulturaletan




Abortatzeko eskubidearen aldeko Bartzelonako Batzordearen Buletinean agertu zen «V Ihardunaldi: Migimendu Feministak 10 urte borrokan» egindako abortu baten argazki-dokumentazioa, 1985 Arxiu Ca la Dona.

## 2024ko uztailak 3, 4 eta 5. Euskal Herriko Unibertsitatea, Letren Fakultatea (Gasteiz)

**RITMOS. Ritmos del Trabajo Femenino en la Historia del Arte y la Cultura Visual (Estado español, 1936-2022)** ikerketa proiektuak antolatuta, PID2021-126211OA-I0. Finantzaketa: MCIN/AEI/10.13039/501100011033/FEDER, EB.
**http://proyectoritmos.com/**

Azken urteetan, gero eta interes handiagoa dago ekoizpen kulturalen eta artistikoen eremutik amatasuna birpentsatzeko. Feminismoek aurreko hamarkadetan baino arreta askoz ere handiagoa ematen diete gaur egun amatasun praktikei, bai aktibismotik, bai arlo teorikotik.

Espainiar estatuan, eleberriak, pelikulak eta proiektu artistikoak askotariko ikuspegietatik lantzen ari dira amatasuna, baina amatasuna desidealizatzean oinarritzen dira guztiak, gero eta neoliberalagoa eta atomizatuagoa den gizarte honetan amaren irudia arazo gisa planteatzeko. Feminismoaren askotariko adarrek ahalegin handia egin dute amatasuna ezarpen sozial bat dela eta haren helburua emakumeak mendean hartzea dela adierazteko, baina, irudit eria kolektiboan, naturalizatuta dago amatasuna emakumeen helmuga biologiko eta soziala den ideia. Gainera, adinekoen, mendeko pertsonen eta gaixoen zaintzara zabaltzen da amatasuntzea.

Ama izateak dakarren esplotazioa arrazionalizatu egiten da, "ideologia maternalistak" izenekoei esker: gizartean defendatzen diren espektatiba afektibo batzuk barneratzean datza, amak bere burua baldintzarik gabeko maitasunaren eta mugarik gabeko zaintzaren iturri gisa ikusi dezan. Sophie Lewis kritikari feministak proposatzen duen moduan, familia abolitzeak aukera emango luke familiari esleitutako ugalketarekin lotutako zaintzak despribatizatzeko eta beste gizarte eraketa berdinzaleago bat imajinatzeko; familia suntsitzeak kapitalismoarekin amaitzea esan nahi du, ikuspegi intimoenetik. Gizarteak menderatu eta esplotatu egiten du ama, eta etxeko operazio zentroaren erro bilakatzen da, kapitalismoa indartzea ahalbidetzeko.

Baina, aldi berean, gizartearen aurkako figura da, suntsitzen gaituen sistema batentzat ekoizten baitu. Zer esan nahi du ama instrumentalizazio kapitalista eta patriarkal horretatik askatzeak? Amaren zer zati geratzen da, behin familia abolituta? Eta, nola imajinatu dezakegu ama desjabetzaren marka gisa, harreman iraunkorrak eraikitzeko, ahaidetasunaz gain, beste modu berdinzaleago batzuk badirela gogoratzeko?

Praktika artistiko, kultural eta bisualen bidez amatasuna eta haren irudikapenak berridazten, aztertzen eta arazo gisa planteatzen saiatuko diren proposamenak jaso nahi ditugu. Hitzaldiak gaztelaniaz eta euskaraz egin daitezke. Eremu akademikotik zein eremu artistikotik, kulturaletik, aktibistatik edo herri eremutik datozen ikerketak onartzen ditugu, honako ardatz tematikoei buruzkoak izanez gero:

**1. MAHAIA: Amaren desafektua: lan afektiboa eta erresisten**
Moderatzailea: **Katryn Evinson** (Columbia University)

Amaren lana, lana bada, zer lan motaz hitz egiten ari gara? Amaren lanak, zati handi batean, alderdi afektibo bat duela ulertzen badugu, zer ondorio ditu haren gehiegizko esplotazioak amen egoera emozionalean? Gaur egungo testuinguruan, amatasunaren esperientzia gizartetik isolatuta eta atomizatuta garatzen da, historian zehar orain arte inoiz ikusi ez den bezala. Hala, agertzen den sintometako bat seme-alabekiko disoziazio emozionala da. Klinikari dagokionez, adierazpen hori patologia gisa sailkatzen da, erditu osteko depresio gisa. Dena den, disoziazio —edo desafektu— horrek hainbat forma hartu ditzake eta, klinikaz harago, arazo psikosozial baten adierazpen gisa ulertu daiteke. Soldatapeko langileen buruko osasun arazoen gorakadaren atzean honakoa dagoela teorizatu izan da: kapitalismoa indartu izanaren ondorioei eta lan arloko baldintza prekarioen normalizazio gero eta handiagoari aurka egiteko modu inkontziente bat. Modu berean, esan al genezake "amaren desafektua" arbuio sintoma bat dela, amaren lanaren gehiegizko esplotazioaren aurrean? Kultura arloko sorkuntzek haien askotariko adierazpenetan amaren desafektua nola landu duten arakatuko dugu mahai honetan.
— Lan afektiboa eta amatasun grebarako estrategia multzoa.
— Amatasuna eta buruko osasuna.
— Desafektua eta amaren subjektibotasunaren desegitea, eta autoafektazioaren ideiarekin duen lotura, subjektibatzeko premisa gisa.
— Amaren desafektuaren esanahiaren eta kultura arloko sorkuntzetan adierazteko moduen aldaketa historikoak.

**2. MAHAIA: Genealogia fantasmak praktika artistiko eta kulturaletan**
Moderatzailea: **Maite Garbayo-Maeztu** (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Griselda Pollockek, Mary Cassat artistaren amatasunaren ikonografia aztertu zuenean, honakoa esan zuen: modernismoak haren modernitatea definitu zuela, ez soilik amaren figura abolituta, baizik eta haren sormenaren jabetza kenduta. Modernismoak tronutik kendu zuen *madonna* eta, harekin batera, ama; eta modernitateko espazio publikoen kontrakoa zen leku batera zokoratu zuen. Amatasunaren oklusio hori estuki lotuta dago genealogia femeninoen eta/edo feministen gabeziarekin. Hori konpontzen saiatu izan dira, artearen historian zehar eta praktika kulturaletan esku hartze feministak proposatuta.

Mahai honetan, genealogia femeninoak eta/edo feministak eraikitzearen gainean hausnartzen duten proposamenak jaso nahi ditugu, feminismoetatik abiatuta artearen historian eta praktika kulturaletan modu kritikoan esku hartzeko funtsezko tresna gisa.— Las representaciones de lo materno en el arte y la cultura.
— Feminismoak lan genealogiko gisa.
— Amatasunaren adierazpenak artean eta kulturan.
—Amatasunaren presentziak eta absentziak praktika artistiko eta kulturaletan.

— Amaren irudia lotura genetikotik eta familia nukleotik harago doazen beste ahaidetasun forma batzuetatik pentsatzea.

### **3. MAHAIA: Amatasuna errefusatzea**
Moderatzailea: **Julia Montilla** (Universitat de Barcelona)

Amatasunarekiko errefusak aurpegi ugari ditu, eta osasun arazorik ez duten emakumeekin lotu daiteke; hau da, ugaltzeko gaitasuna duten arren, ez ugaltzea, abortatzea, abandonatzea edo infantizidioa aukeratzen duten emakumeekin. Ugalketa eskubideak edo horien gabezia ezagututa egiten dituzte aukera horiek, eta hainbat konturekin lotuta egon daitezke, hala nola desafektuarekin edo buruko osasunarekin. Haurdunaldia lan gisa ulertu daiteke. Ondorioz, norberaren borondatearen aurka haurdun geratu beharra bortxazko lan gisa ulertu daiteke. Premisa horretan oinarrituta, ama ez izatearen erabakia praktika artistiko eta kulturaletatik lantzen duten komunikazioak jasoko ditugu.
— Abortu libre eta doakoaren aldeko eta antisorgailuen erabileraren aldeko borroka.
— Amatasun senaren mitoaren eraikuntza soziala, eta hura zalantzan jartzea.
— Ugaltzen ez diren emakumeen estigmatizazioa (berekoi, heldugabe edo osatugabetzat hartzen dira).
— Erditzen ez direnei inposatutako betebeharrak (adibidez, hirugarren adineko ahaideen zaintzaz arduratzea).
— Infantizidioa, erresistentzia ekintza gisa (adibidez, esklabotza testuinguruetan).

### **4. MAHAIA: “Egoezinaren banaketa sexuala”. Amatasunak, matxinadak eta ekintza kolektiboa**
Moderatzaileak: **Cecilia Pascual** (ikertzaile independentea) eta **María Rosón** (Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea)

Temma Kaplanen *kontzientzia femeninoa* kontzeptutik abiatuko gara. Emakumeek lanaren banaketa sexualaren ondorioz haiei esleitutako eskubideak defendatzeak ondorio politiko erradikalak izan ditzakeela ulertzen da kontzeptu horrekin, aipatutako banaketa nagusiki kontserbadorea izan arren. Egoera zapaltzaile baten aurrean, emakumeak nola antolatu izan diren edo ohiko oreka hautsia berreskuratzeko protestak nola egin izan dituzten lantzen duten proposamenak jaso nahi ditugu. Zehazki, amatasuntzen duten horietan edo hazkuntza lanetan eta bizitza zaintzeko ardura lanetan parte hartzen duten horietan zentratuko gara.

“Egonezinari” dagokionez, kontzeptua bera konplexu bilakatzen duten erresistentziarako estrategiak eta prozesuak nabarmentzen ditugu. Izan ere, ekintza kolektiboak eraldatu, (de)formatu eta lehertu egiten ditu mugimendua antolatzen duten abiapuntuak.
— Bizitza kontserbatzea eta zaintzea, ekintza kolektiboen edo indibidualen bidez.
— Fitxategien eta iturrien gaineko abordatze metodologikoak. Esamesak, txutxu-mutxuak, abestiak. Ohikoaren poetikak.
— Protestaren antolaketa esperientziaren bidez, sindikatuen edo gremioen aldarrikapen helburue-

tatik desbideratuta edo horien osagarri gisa.
— Maiatzeko Plazako amak, memoria eta historia; Drogaren aurkako amak; Narkotrafikoa eta hezur bilatzaileak; Amatasuna borroka armatuaren eta gerrillaren testuinguruan.
— Amatasunak, sexuagatiko erbestealdiak, migrazioak.

**5. MAHAIA: Amatasunen lanak. Aurrez debaluatutako gorputzetan/espazioetan pilatzen den guztia**
Moderatzailea: **Luisa Fuentes Guaza (ikertzaile independentea eta aktibista)**

“Etxeko” espazioan inbrikatutako genero esleipenek zeharkatzen dituzte amatasun praktikak. Espazio hori pilaketa eremu bat da, politizatzeko aukerarik ematen ez duena, politikoki izendatu ezin dena. Horrek etengabeko ondorioak eta derramak eragiten ditu praktika horiez arduratzen diren gorputzetan, eta etxeko esklabotza garaikideak errepikatzen dira. Hala, espazioak eta gorputzak debaluazio sistemiko batean korapilatzen dira, eta *ez-izate* egoeran kokatzen dira. Ardatz horietan oinarrituta, amatasun praktikek barne hartzen dituzten askotariko lanen aniztasuna, espezifikotasuna eta ondorioak arazo gisa planteatzen dituzten proposamenak jaso nahi ditugu. Genero-esleipenek zeharkatutako espazioekin etengabeko negoziazioan daude horiek: erromantizaziorako inertziak, betiereko ukapena, psiko-betebeharrak eta heteroaginduak.
— Etxeko langileen borrokak, ama kolektibizatuen borrokak eta bi borroken arteko aliantza posibleak, espazioen politizazioa dela eta.
— Amen gorputzen gaineko ondorioak: amatasun praktikak onartzen dituzten amak eta gorputzak, ez-izatearen baldintzak eragindako zauri historikoa dela eta.
— Amatasun praktikek barne hartzen dituzten askotariko lanen aniztasuna, espezifikotasuna eta arazo gisa ulertzea.
— Gizartean eta historian emakumearen gorputzarekin lotutako espazioen debaluazioa.

## PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEMUGA

— Hitzaldien proposamenak 2024ko apirilaren 30a baino lehen bidali behar dira: hitzaldiaren izenburua, zein gaitan ardazten den eta 250 hitz inguruko laburpena, euskaraz edo gaztelaniaz, ohar biografiko laburrarekin batera (10 lerro, gehienez ) (txantiloia: https://t.ly/mU8Bz), bidali proposamena helbide honetara: **proyectoritmos@gmail.com** (emailaren izenburuan mahaiaren zanbakia sartu)

— Batzorde antolatzaileak berrikusi ondotik, kongresuaren zuzendaritzak emango du onarpen erabakiaren berri 2024ko maiatzaren 15a baino lehen.

— Hitzaldiak (**15 minutukoak**) euskaraz edo gaztelaniaz eskainiko dira.

## IZEN-EMATEAK

— Entzule gisa izen-emateko: email **proyectoritmos@gmail.com**

# EGITARAUA

## Asteazkena, uztailak 3

**16:00** **Ongietorri**, **Maite Garbayo-Maezturen** eskutik (Ramón y Cajal ikertzailea Euskal Herriko Unibertsitateko Artearen eta Musikaren Historia Sailean). Proiektuaren IP: PID2021-126211OA-I0. *RITMOS. Ritmos del Trabajo Femenino en la Historia del Arte y la Cultura Visual (Estado español, 1936-2022). Experiencia Moderna Ikerketa Taldea*

**16:30** **1. MAHAIA**. **Desafektuak. Lan afektiboa eta amatasun greba.**
Koordinatzailea: **Katryn Evinson** (University of Columbia, New York)

**18:00** **Katixa Agirre eta Mar García Puig idazleen arteko elkarrizketa.**
**"Ama txarrak eta idazle onak".**

## Osteguna, uztailak 4 Goizean

**10:00** **2. MAHAIA. Genealogia fantasmak: amatasunaren presentziak eta absentziak praktika kulturaletan.** Koordinatzailea: **Maite Garbayo-Maeztu** (EHU)

**12:30** **3. MAHAIA. Amatasuna errefusatzea.**
Koordinatzailea: **Julia Montilla Campillo** (UB)

**16:30** **4. MAHAIA. "Egoezinaren banaketa sexuala". Amatasunak, matxinadak eta ekintza kolektiboa.** Koordinatzaileak: **María Rosón Villena** (UCM) eta **Cecilia Pascual** (ikertzaile independentea)

**18:00** **Rosalva Aída Hernández Castillore** (Antropologia Sozialeko Ikerketen eta Goi Mailako Ikasketen Zentroa (CIESAS), Mexiko) hitzaldia.
**"Mexikoko emakume bilatzaileak: Amatasunaren politizazioa eta hildakoen zaintza".**

## Ostirala, uztailak 5

**10:00** **5. MAHAIA. Amatasunen lanak. Aurrez debaluatutako gorputzetan/espazioetan pilatzen den guztia.** Koordinatzailea: **Luisa Fuentes Guaza** (UAM, Madril).

**12:30** **Ona Bros** (Artista)
**"BetaBlastoCuir eta izotzaren komunitateak"**

**14:00** **Itxiera eta agurra.**

**BATZORDE ANTOLATZAILEA:** **Maite Garbayo-Maeztu** (Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU) / **María Rosón Villena** (Universidad Complutense de Madrid) / **Katryn Evinson** (Duke University) / **Julia Montilla Campillo** (Universitat de Barcelona) / **Luisa Fuentes Guaza** (Activista e Investigadora independiente) / **Cecilia Pascual** (Investigadora Independiente)

**FINANTZAKETA:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) / Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades/Zientzia eta Berrikuntza / Ministerioa. Proiektua: PID2021-126211OA-I0.

eman ta zabal zazu
UPV EHU

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE CIENCIA E INNOVACIÓN